

EBAZ arauen gaur egungo erabilera

Gradu Amaierako Lana

Olatz Leturiaga Angoitia

EUSKAL IKASKETAK GRADUA

2017-18 ikasturtea

Tutorea:

Miren Lourdes Oñederra

EUSKAL IKASKETAK ETA
HIZKUNTZALARITZA SAILA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. EBAZ: <i>Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua</i>	3
2.1. Testuinguru sozio-politiko kulturala.....	3
2.2. Ahoskera Lantaldearen emaitzak.....	6
2.3. Arauak.....	8
3. CORPUSAREN AZTERKETA.....	12
3.1. Datuak.....	12
3.2. Datuen analisisa.....	19
3.3. Maileguak.....	28
4. AHOSKERAREN GARRANTZIA GAUR EGUN.....	29
5. ONDORIOAK.....	31
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	33

Laburpena

Hurrengo lerroetan EBAZ (*Euskara Batua*ren Ahoskera Zaindua) arauen gaur egungo erabilera aztertuko da, Euskal Telebistako Gaur Egun albistegietako hiru saio oinarri hartuta. Lanaren lehendabiziko atala teorikoagoa izango da eta bigarrena aldiz, aplikatuagoa, datu enpirikoetan oinarrituagoa.

Hasteko, Batua sortu zen garaiko testuinguru sozio-politiko kulturalaren berri emango da, ikusiko dugun moduan, orduko gertakari politiko eta ideologikoen garrantzi handia izan baitzuten euskara estandarren inguruko eztabaidan. Hainbat izan ziren garai hartako euskararen egoeraz kezkatuta euskararen batasunaren alde lanean jardun zutenak; horien artean ezinbestekoa izan zen, besteak beste, Txillardegik eta Mitxelena egindako lana. 1968ko Arantzazuko Biltzarrean euskara estandarren idatzizko arauak ezarri ziren; ahoskerari, ordea, ez zitzaion garrantzi handiegirik eman. Denborarekin, ahoskeraren garrantziaz ohartu eta, 1993an, Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea sortu zuten; 1994an, ahoskera arautzeko lehen arautze proposamena egin zen, nahiz eta EBAZ arauak 1998 arte ez ziren argitaratu. Ahoskera arautzea ez zen lan erraza izan, galdera eta zalantza ugari sortu baitziren: hizkera mailak bereizi beharra ikusi zen eta, hizkera maila horien artean, hizkera zaindua zer den eta noiz erabili behar den zehaztu beharra zegoen; baita hizkera zaindua nola arautu, hots, arauak nola adierazi ere. Horren berri eman ondoren, 1998an ezarritako arauak aurkeztuko dira, arau horietan oinarrituta egin baita corpusaren azterketa.

Atal aplikatua deitu dioguna corpusaren azterketarekin hasten da. Lehendabizi, corpusean bildutako datuak bere horretan aurkeztuko dira, arauen eremuko adibideak bilduz; hizkera zaindurako arauen arabera ahoskatu diren hitzak jaso dira, baita arauak betetzen ez dituztenak ere, halakorik egon den kasuan. Ondoren, datu horien analisisa egin da, hiru esatariren ahoskerak alderatuz. Esatari batetik bestera aldakortasuna ikusi da arau bakoitzaren betetze mailari dagokionean, baita esatari bakoitzaren kasuan, arau batetik bestera ez ezik, arau bakoitzari dagokionean ere. Corpusean bildu diren mailegukiko jokabidearen interesa dela eta, maileguen ahoskeraren azterketari aparteko atal bat eskaini zaio; atal honetan, esatariek maileguak ahoskatzerakoan, hizkuntza emailearen ahoskerari eutsi dieten edo hizkuntza hartzailearen fonologiara moldatu dituzten aztertu da. Bereizkuntza horretarako, *adaptazio* eta *adopzio* terminoak erabili dira.

Ondorioetara iritsi aurretik, gaur egun ahoskerari ematen zaion garrantziaz hausnartu da, irakurlea gogoetara bultzatzeko asmoarekin. Azkenik, lanean ateratako ondorio nagusiak zein diren esango da, irakaskuntzak arauen erabileran eta hedapenean duen garrantzia azpimarratzearekin batera.

1. SARRERA

Hogei urte igaro dira Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordeak EBAZ arauak ezarri eta argitaratu zituenetik. Garai hartan, euskara lehen erabiltzen ez zen esparruetara zabalduz zihoanez, euskararen batasunaren alde lanean zihardutenek ahozko euskara arautzeko beharra ikusi zuten, idatzizkoarekin egin zen moduan. Gaur egun ere euskara idatzizko zein ahozko esparruetara hedatzen jarraitzen da eta, beraz, une egokia izan daiteke 1998an argitaratutako arau horiek urte hauetan eraginik izan duten edo ez ikusteko.

Etorkizunean aurrera pausuak egiteko asmoz, ikuspegi kritiko batetik begiratu nahi izan zaio gaiari. Alde batetik, denborarekin gizartea aldatu egiten da, eta, gizartearekin batera, hizkuntza. Hizkuntzari behar berriak sortzen zaizkio eta hizkuntzaren behar horiei erantzutea da edozein hizkuntza-akademiaren eginkizuna; lan honetan landuko denari lotuta, ahozko euskara arautzea adibidez. Bestalde, ordea, Akademiak ahozko euskara zaindurako arauak ematea ez litzateke nahikoa izango, hiztunak erabili behar ez baldin baditu; hiztunaren eginkizuna litzateke Akademiak emandako lanabesak praktikan jartzea, bestela araua teoria hutsean geratzeko arriskua baitago.

2. EBAZ: *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*

2.1. Testuinguru sozio-politiko kulturala

Salaberrik (2018) dioenez, hizkuntza idatziaren berezitasunak zehazteko beharra euskaraz idazten hasi ziren une beretik sortu zen; idazleek aukera bat baino gehiago zuten eskura eta, egiten zuten hautua egiten zutela, hiztun batzuek erraz ulertuko zuten haiek idatzitakoa, eta beste batzuek aldiz, ulertzeko zailtasunak izango zituzten. Hori horrela, XVI. mendean, Joanes Leizarragak, Testamentu Berriaren itzulpena (1571) egin zuenak, ahalegin handia egin zuen hizkera ezberdinetako euskal hiztunek ulertuko zuketena hizkuntza-eredu bat sortzeko. Urte batzuk geroago, Axularren *Gero* (1643) argitaratu zen eta han ere aipatzen da Euskal Herriko hizkera guztietara hurbiltzeko

zailtasuna, hizkeren arteko desberdintasun handiarengatik. XVIII. mendean, aldaketa etorri zen Larramendirekin; honek Gipuzkoa erdialdeko hizkera proposatu zuen euskara estandarren oinarritzat. Hurrengo mendean, ordea, Mogel eta Añibarro bezalako idazleek literaturan izandako arrakasta dela eta, euskara estandarra Bizkaia mendebaldeko hizkeretan oinarritzearen ideia zabaldu zen. Gerra Zibila (1936-1939) baino lehenagoko urteetan, Gipuzkoako hizkeren alde egin zuen berriz ere Azkuek eta, 1940ko hamarkadan, Laffitek Ipar erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan, nafar-lapurteran, oinarritzea proposatu zuen (Oñederra, 2016: 127).

Ikus daitekeen moduan, Euskal Herriaren zatiketa administratiboak, bi estatu desberdinetan banatua egoteaz gain estatu bakoitzaren barnean beste probintzia batzuk izateak, eredu estandarren inguruko iritzi ezberdinak egotea zekarren. 1918an, nazionalismoak eta, oro har, euskal kulturaren inguruan sortutako elkarteek hartutako indarrari esker, Euskaltzaindia sortu zen, Euskal Herriko hizkera guztiak bateratzeko asmoz. Handik aurrera, Euskaltzaindiaren barnean bideratuko ziren hizkuntzaren inguruko eztabaidak. Euskaltzaindia sortu eta urte gutxira, Primo de Riveraren diktadura (1923-1930) hasi zen, gero 1931-1939 arteko Errepublika eta, azkenean, Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) lehertu zen. Francoren Diktadurak (1939-1975) iraun zuen artean, belaunaldi oso bat funtsean isilean geratu zen (Salaburu, 2018: 749).

Garai hartako eztabaida ideologikoak eragin handia izan zuen eztabaida linguistikoan eta, batik bat, euskara estandarren inguruko eztabaidan. 1964an, Txillardegik euskara estandar berri bat proposatu zuenerako, euskararen batasuna eztabaida politikoarekin nahastua zen eta eztabaida horretan biolentziaren aldekoak eta kontrakoak bereiz zitezkeen (Oñederra, 2016: 129). Txillardegi ETArekin sortzaile eta, urte luzez, aldeko izateak batasunaren ahulezia handia ekarri zuen, baina aldi berean, batasunari bultzada handia eman ziola ere esan daiteke: 1963ko udazkenetik 1964ko udaraino, Txillardegi bera eta batasunaz arduratuak ziren beste hainbat lagun (Jean Louis Davant, Roger Idiart, Andiazabal, Hiriart-Urruty, Lafitte, etab.) hilero bilkurak egiten hasi ziren; 1964an, Baionan egindako bileran batasunaren lerro nagusiak ezarri ziren azkenik (Salaburu, 2018: 750)

Txillardegirekin batera, garai hartako beste irudi garrantzitsuetako bat Koldo Mitxelena izan zen. Mitxelenak argi zuen euskarak euskaldunak batzeko bidea izan behar zuela, eta, hizkuntzak iraun zezan, euskara estandar bat osatzea ezinbestekoa zela zioen urte

batzuk lehenago Baionan adostutako urratsei jarraituz (Oñederra, 2016: 130). Gerra Zibilean (1936-1939) konpromezu politiko handia erakutsi zuen eta bera izan zen euskararen gramatikaren estandartzean ezaugarri garrantzitsuenak ezarri zituen. Batasunaren bidearekin jarraitzeko Mitxelenaren bideari jarraitu zitzaion, ziurrenik bere lanetan ikus zitekeen sen eta zentzu komun handiarengatik (Salaburu, 2018: 755).

1968ko Arantzazuko Biltzarraren ostean, Euskara Batua deitu zitzaion hizkuntza idatzirako eredu estandarra onartu zen. Euskara Batuaren oinarria ezartzerakoan, garaiko idazleen gehiengoak erabiltzen zuten hizkuntzan oinarritu ziren. Mitxelenak zioenez (Ibarzabal 2001 apud Oñederra, 2016: 128), Gipuzkoako, Nafarroako eta Lapurdiko hizkeretan oinarritutako “nahasketa” moduko bat zen, bertan baitzegoen euskal hiztunen portzentajerik altuena. Euskararen bateratze prozesu honetan, aipatutako hiru hizkera horiez gain, bazterretako beste hizkerek ere bazuten lekurik; izan ere, erdialdeko hizkeren gune komun hori beren berezitasunez osatu eta aberastuko zuten (Kintana, 1992: 37).

1975eko azaroan Franko hil eta demokraziaren garaia iritsi zen Hego Euskal Herrira: Euskara ofizial egin zen Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru probintzietan eta Nafarroako zati batean. Hartara, lehen erabiltzen ez zen erabilera esparruetara zabaldu zen (komunikabideak, unibertsitatea, administrazio publikoa, etab.) eta euskara bigarren hizkuntzat ikasten zuten hiztun berrien kopuruak gora egin zuen. Aldaketa hauek hizkuntza eredu batuaren beharra areagotu zuten. Hala ere, Kintanak (1992) esan bezala, batasunaren arrakasta, bereziki, hizkuntza eredu hori hedatzen lagundu zuten, eta gaur egunean ere halaxe jarraitzen duten, irakasle, idazle, kantari, ikus-entzunezko komunikabide eta abarrei zor zaie.

Arantzazuko Biltzarrean eta Euskaltzaindiaren ondorengo lanetan, ahoskera ez den beste alorrei eman zitzaien lehentasuna, nahiz eta komunikabidetako profesionalek, irakasleek, hiztun berriek eta abarrek ahoskera arautuaren premia izan.

Ahoskeraz kezkatu zen lehenengoetakoa Txillardegi izan zen; bere ustetan, idatzizko hizkuntza arautzea lehen urratsa izan arren, hizkuntzaren berezko erabilera ahozkoa dela kontuan izanik, idatzizkoaren osagarri izango zen ahozko katearen kudeaketa zehatza beharrezkoa zuen Batuak; ahoskeraren mailan euskal erregularik ez emateak, erdal ahoskera hobestea eta zabaltzea ekarriko zuen. Hori horrela, euskaldunok geure bidea egin behar dugula zioen, geure egoera soziolinguistikoa aintzat hartuz, euskaldunak

entzun eta adituz, bereziki zaharrak, erdal interferentzia txikiagoa baitute eta fonologiaren alorrean hobeto mintzo baitira (Txillardeggi, 1987: 6).

Ahoskeraren gaiaren inguruko kezka tarteko, 1993an, Euskaltzaindiak Ahoskera Batzordea sortzeari ekin zion. 1994an EBAZ arauak ekarriko zituzten zenbait proposamen egin eta gero, 1998an argitaratu ziren arauak lehendabizikoz. Urte batzuetan geldirik egon ondoren, 2013an, Euskaltzaindiak berriz Ahoskera Batzorde bat osatu eta gaiari heldu zitzaion.

2.2. Ahoskera Lantaldearen emaitzak

Esan bezala, 1994an ekin zioten ahozkoaren inguruko lehen galderak egiteari, zer, zergatik eta zertarako arautzen zuten azalduz, baita noraino arautu zitekeen gogoeta eginez ere.

Beste hizkuntzetan halaxe egiten da eta, euskararen kasuan ere, hizkera zainduaren ahoskera arautzetik hasi ziren. Oñederrak (1994) dioenez, Euskara Batuaren erabilera eremuak mugatuagoak izanik eta erabiltzaileak hizketaren profesionalak, arauak errazago zabal zitezkeela uste izan zuten. Hala ere, bazekiten ahoskera arautzea ez zela lan erraza izango; izan ere, hitz egitea, hotsak ahoskatzea, bat-batekoa da, idatzizkoa baino inkontzienteagoa.

Ezer baino lehen, hizkera zaindua zer den eta noiz erabili behar den argitu beharra zegoen: Bada, *hizkera zaindua* diogunean, ahoskerari arreta jartzea errazten duen hizkerari egiten diogu erreferentzia, hots, irakurtzean, entzulego handi edo ezezagunaren aurrean eta antzekoetan erabiltzen den hizkerari. Beraz, hizkuntza maila jasoetan (irradi-telebistetako berri emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenenentarako, etab.) erabili beharreko eredua da eta hizkuntza estandarretarako, ez euskalkien ahoskerarako pentsatua (Oñederra, 1994: 1592). Hala ere, beste erabileretarako eredu izatea nahi zuten, beste erabilerak ere aintzat hartuz kontrastez arautzea, alegia.

Ahoskera Lantaldean hizkuntzaren erabilera errealetan gertatzen zena aintzat hartzen saiatu ziren eta ez beren ustea nola edo hala sartzen. Ez zuten arau zerrenda bat eman eta ahoskera batu bakarria proposatu nahi, hiztunaren araberrako aldakortasuna kontuan hartuko zuena baizik. Izan ere, arau zorrotzegiek hiztunari ukatzen zaizkion aukera

horiek beste hizkuntzatik hartu beharra ekarriko lukete eta hizkuntza babestu beharrean, ahuldu (Oñederra, 1998c: [18-02-23]). Arau dinamikoak bilatzen zituzten, hitz berriak euskaratzen lagunduko luketenak.

Euskalki eta hizkera guztietan modu berean ahoskatzen diren grafemen ahoskera arautzerakoan, ez zuten arazorik izan, bai, ordea, hiztun batzuetatik bestera aldatzen direnekin. Horrelakoetan zer egin erabaki beharra zegoen: 1) aukera bat hobetsi eta bestea baztertu, 2) aukera bat hobetsi baina besteari ere lekua utzi edo 3) bi aukerak ontzat eman. Lehen aukera hizkera mailen arteko ezberdintasunik gabeko hizkuntza murriztuaren alde egitea izango litzateke eta hirugarren aukerak berriz, ez luke erabat balioko bertako hizkera bizia ez den lekuetan. Beraz, aukera horien artean bigarrena hautatu zuten, aukera bat hobetsi baina besteari ere lekua uztea, alegia.

1994ko lehen idaztaldi hartatik 1998kora aurretik aurkeztutako proposamenen berrikusketa egiteaz gain, batzuk zehaztu eta malgutu egin zituzten, baita zabaldu ere: Batetik, 1994an egin bezala, indartze edo fortitio bilakabideak (afrikatzeak, hasperena, txistukariaren ondorengo ahoskabetzeak, etab.) hobetsi zituzten, oharmenean laguntzen duten ordezkatzeko fonologikoak diren aldetik, hizkera maila zaindurako egokiak baitira (Donegan & Stampe, 1979: 142). Bestetik, formulazio batzuetan atzera egin behar izan zuten: <u> bokalaren [y] ahoskera sabaikaria onartu zuten, baita ekialdeko eta iparraldeko euskalkietan goranzko diptongoak silaba bakarrean ahoskatzea eta Hegoaldeko hiztunek *zihoan* edo *zihoazen* bezalako adizkietan <h>-ren [x] ahoskera belarra egitea ere. <e> eta <i> aurreko maileguetako <g>-ren nahiz <j> grafemaren [x] ahoskera belarrari dagokionez, azken orduko mailegu batzuetan onartzea eta salbuespenak banan bana adieraztea adostu zen (Euskaltzaindia, 1998).

1994an garrantzia arau segmentalei eman bazitzaien ere, ezin ukatuzkoa zen prosodiari ere bere lekua egin behar zitzaiola. Euskararen azentua oharmenaren aldetik iheskorra da; ez da erregularra, ez eta lexiko-gramatikalki erabat sistematikoa ere, sintaktikoki aldakorregia da eta akustikoki ez da nabarmenegia euskalki askotan. Ezaugarri hauek nahikoa ez eta Batua ikasi dugunean, ahoskerarako araurik ez genuenez, ortografian oinarritu gara eta euskara berriak doinu berri bat hartu du: azentu erregularra, prosodia “on” eta “erraz” bat, azken aurreko silabaren indartze erregularrarekin lotua dagoena eta gazteleraren eragina izan daitekeena: <*joatén bagára kótxez*> edo <*burúko mína dáwkat*> (Oñederra, 1998a: 269). Euskaldunek beren hiztegian zituzten mailegu,

konposatu eta eratorriak gehituz zihoazen, aukera lexikoak zabaldu egin ziren eta zenbait hitzen hurrenkera eta berritasunek erritmo arazoak ekarri zituen; baita ortografia berrian idatzitakoa ahoskatzeak eta euskaldun berriek zekarten prosodiak ere. Honek guztiak, prosodia arautu beharra areagotzen zuen.

Hizkeratik hizkerara desberdintasun nabarmenak aurki daitezkeela ikusi zuten; euskal hiztunek euskal hitzak azentu-molde, neurri eta doinu desberdinetan txertatzen dituzte beren jatorriaren, adinaren, hizkuntza-gaitasunaren eta alfabetizazio-mailaren arabera, besteak beste. Horren aurrean Euskaltzaindia lehengo neurri eta doinuak gordetzen eta euskararen prosodia aintzat hartzen saiatu zen, estandarra horiekin bateragarri izan zedin. Horregatik, ez zuen azentu-eredu bat eta bakarra proposatu.

2.3. Arauak

Datuak eman aurretik, atal honetan Euskaltzaindiaren proposamenak bilduko dira, irakurketa errazteko asmoz. Arau edo proposamen hauen ezaugarri bereizgarria da heterogeneotasuna: arau batzuk hobespenak dira, igurzkari apikari eta lepokaria bereiztea adibidez; beste batzuk berriz, debekutat hartzekoak, hala nola, gaztelerazko hortzartekoaren ahoskera. Arau zerrenda soil bat baino gehiago dela esan daiteke eta kasu batzuetan iruzkinak, arauen justifikazioa edo beste hizkera mailetarako gida antzeko bat ere ematen da. Ondokoak dira, hortaz, Euskaltzaindiak 1998an argitaratutako EBAZ arau edo proposamenak¹ (Euskaltzaindia, 1998):

- Bokalak:

- 1) (I) <a, e, i, o, u> bokalak dagokien fonema bere oinarritzko forman gauzaturaz (/a/, /e/, /i/, /o/, /u/) ahoskatuko dira. Sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskalkietan, hala eskatzen duten hitzetan, <u>-ren ahoskera biak ([u] eta [y]) onartuko dira hizkera maila zainduan ere.

¹*Euskera* liburuan egiten den moduan, bokalak, bokal bilkurak, kontsonanteak eta kontsonante bilkurak bereizi dira; antolaketaren aldetik ezberdintasun txikiren bat dagoenez, arau bakoitzak *Euskera* liburuan duen zenbakia adierazi da parentesi artean. Horrez gain, Euskaltzaindiaren arau edo proposamenak fonologiaz dakienarentzat egokitu dira, arauak argitaratu zirenean, ahoskera adierazteko letrak erabili baitziren transkripzio fonetikoak ezagutzen ez dituzten irakurleengan pentsaturaz.

- Bokal bilkurak:

- 2) (II) <ea> eta <oa> bokal bilkurak [ea] eta [oa] ahoskatuko dira, inolako txandakatze fonologiko edo eransketarik egin gabe. Bokal bilkura hauen bestelako ahoskerak beste hizkera mailetarako utziko dira (*etxia, etxie, geruago, telefonua, etab.*). <ia> eta <ua> bokal bilkurak ere [ia] eta [ua] ahoskatuko dira; beste hizkera mailetarako utziko dira *mendie, mendi, buru* bezalako bokal aldaketa nahiz kenketak eta *mendiya, mendixa* edo *buruba* bezalako eransketak (Euskaltzaindia, 1998: 487).
- 3) (III.1 eta III.2) Lehenengo bokala <u> edo <i> bada, bokal bilkura bi silabatan, hiatoan, ahoskatuko da horrela egiten duten hizkeretan; hala ere, badira *ui* diptongoak. Bokal bilkura hauek silaba bakarrean, diptongoan, ahoskatzea ere onartuko da hala egiten den ekialdeko eta iparraldeko hizkeretan.
- 4) (IV) Bokal biren artean <h> idazten denean, bokal bakoitza silaba batean ahoskatuko da hizkera maila zainduan: *za.harra, na.hi du, a.hula, be.hi, etab.* (Euskaltzaindia, 1998: 488).

- Kontsonanteak²:

- 5) (V) <b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz ,z> dagokien fonemaz (/b/, /d/, /f/, /g/, /k/, /l/, /ʎ/, /m/, /n/, /ɲ/, /p/, /r/, /r/, /s/, /t/, /tʃ/, /tʃ/, /tʃ/, /tʃ/, /s/) ahoskatuko dira.
- 6) (V.1) <e> eta <i>-ren aurreko maileguetako <g> beste bokalen aurrean bezalaxe [g] ahoskatuko da ahoskera zainduan. Azken orduko maileguetan salbuespenak banan bana markatu dira.
- 7) (V.2) <s, z> eta <ts, tz> kontsonanteak [s̺], [s̺], [tʃ̺] eta [tʃ̺] ahoskatuko dira. Hizkera zainduan /s̺/ lepokaria eta /s̺/ apikaria bereiztea hobetsiko da.

²Laburtzearren, <il> eta <in> bokal-kontsonante bilkurak ere kontsonanteen sailean sartu dira, hiztun batzuek behintzat <il> [ʎ] albokari sabaikaria eta <in> [ɲ] sudurkari sabaikaria ahoskatzen baitute.

- 8) (V.2) Euskaraz <z> beti txistukaria da eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko [θ] ahoskera hortzartekoa.
- 9) (V.3.) Hizkera zainduan bokalarteko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira eta hizkera arduragaberako utziko dira bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen kenketa nahiz aldaketak.
- 10) (V.4) <r, rr> euskaraz hortzobikari dira beti eta gaitzetsi egin behar da frantsesezko [R] ahoskera ubularra hizkera zainduan.
- 11) (VI) <h> dagokion fonemaz (/h/) ahoskatuko dute hizkera zainduan ere letra hau hostuna den Iparraldeko euskalkietako hitzunek; <ph,th,kh> grafemak ere hasperendun [p^h], [t^h] eta [k^h] ahoskatuko dira. Letra hosiakabea den Hegoaldeko euskalkietako hitzunek ahoskera zainduan ere <h> ez dute ahoskatuko. Azken hauen kasuan salbuespen bakarra *zihoan*, *zihoazen* bezalakoetan gertatzen da, horietan <h> [x] belarraz ahoskatzen delarik.
- 12) (VII) <il, in> bilkurak [ʎ] albokari sabaikaria eta [ɲ] sudurkari sabaikaria ahoskatzen diren euskalkietako hitzunen bustidura hori ahoskera zainduan ere egoki da. Bustidura hori ez duten euskalkietako hitzunen berriz, bustidurarik gabea ([il] eta [in]) izango da ahoskera zainduan ere³.
- 13) (VIII) <j> grafemaren euskarazko ahoskera oinarrizkoa [j] sabaikaria da eta hori da hizkera zaindurako hobesten dena, oro har. Hala ere, badira <j> hitz hasieran duten eta [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak; horietako batzuk hizkera maila zainduan gertakortasun urrikoak dira eta beste batzuk Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*); <j> hitz barnean doanean (hala nola

³Urte batzuk lehenago, Salaburu eta Kintanak (1984) <il> bokal-kontsonante bilkura [ʎ] albokariarekin ahoskatzea komeni zela esan zuten, eta ez [j] ez-albokariarekin. Bi hots horiek bereizteko gai ez denak berriz, hobe duela palatalizaziorik gabe [il] ahoskatu (Salaburu & Kintana, 1984: 22). Hitzun desalbokaritzaileri gomendatutako despalatalizazioa, ordea, ez da gomendatzen EBAZen.

garaje, ijito), Hegoaldeko [x] ahoskera belarra eta Iparraldeko [ʒ] sabaiaurrekoa ere onartzen dira hizkera zainduan (Euskaltzaindia, 1998: 489).

14) (IX) <x> grafemak [ʃ] ahoskera sabaiaurrekoa du lehengo euskal hitzetan baina maileguetan bokalartekoa [kʃ] ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan. Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira; horietan ere [kʃ] ahoskera egin daiteke.

- Kontsonante bilkurak:

15) (X) <zb, zd, zg> bilkuretan kontsonante ahostuna (aditz formaren hasieran agertuko dena) ahoskabetu egin behar da hizkera maila zainduan ere: *ez[p]ada* “ez bada”, *ez[k]ara* “ez gara”, etab. (Euskaltzaindia, 1998: 489).

16) (XI) <zz> bilkura (<z> kontsonantea eta aditz formen hasieran agertuko den ondorengo <z>) batera ebaki behar da [tʃ] afrikatua osatuz: *e[tʃ]ara* “ez zara”, *e[tʃ]enion* “ez zenion”, *e[tʃ]uen* “ez zuen”, etab. (Euskaltzaindia, 1998: 489).

17) (XII) <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> kontsonante bilkuretan txistukaria afrikatu egin ohi da euskaraz (*unibertsitate, Frantzia, faltsua*). Hitz mugan ere ordezkatzeko hori egiten den euskalkietan afrikatzea onartzen da ahoskera zainduan: *esan[tʃ]uen* “esan zuen”, *eman[tʃ]ion* “eman zion”, etab. (Euskaltzaindia, 1998: 489-490).

18) (XIII) <zn, zl, zh> kontsonante bilkuretan, <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskalki batzuetan txistukaria ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutat hartuko da horrelakoetan txistukaria ahoskatzea, baita ez ahoskatzea ere: *eznaiz* edo *enaiz* “ez naiz”, *ezluke* edo *eluke* “ez luke”, etab. (Euskaltzaindia, 1998: 490).

3. CORPUSAREN AZTERKETA

Gaur egun Euskaltzaindiak proposatutako EBAZ arauen erabilera zenbaterainokoa den ikusteko, Euskal Telebistako albistegi saioa aurkezten duten hiru aurkezleren saio bana aztertu da: Iban Garate (IG), Xabier Usabiaga (XU) eta Amaia Cayero (AC) aurkezleen saio bana⁴, hain zuzen.

Hiru aurkezleetatik bi, Iban Garate eta Xabier Usabiaga, gipuzkoarrak dira eta hirugarrena, Amaia Cayero, bizkaitarra. Iban Garate 1982. urtean jaio zen, Azkoitian. Gaur egun telebistako aurkezlea den arren, antzezle lanetan ere ibili izan da. Xabier Usabiaga (1969, Asteasu) berriz, euskal txirrindulari ohia eta euskal telebistako aurkezlea da; albistegi saioa aurkezteaz gain, kate berean txirrindularitzako hainbat lasterketa emanaldietan esatari ere aritzen da. Azkenik, Amaia Cayero (1984, Gatika) ikus-entzunezko komunikazioa ikasi ondoren, Euskal Telebistan erredaktore gisa hasi zen; azken urteetan aurkezle lanetan ere ikus ahal izan dugu hainbat saio ezberdinetan (*Wikipedia*⁵: [18-04-30]).

Ikus daitekeen moduan, hizkera eta adin ezberdineko hiru esatari hautatu dira; modu honetan, aurkezleek hizkera zaindurako proposatutako arauak betetzen dituzten edo ez ikustearekin batera, bi eragile horiek euren ahoskeran eraginik baduten ere aztertu nahi izan da.

3.1. Datuak

Atal honetan ekoizpenetan jasotako datuak bere horretan emango dira, gorago jasotako arauen arabera antolaturik, hauen analisia hurrengo atalerako utziaz. Arauen betetzea erakusten duten adibideak jaso dira, baita kontrakoa adieraziko luketenak ere, halakorik egon den kasuan. Horretarako, arau bakoitzaren eremuko hitzak nahiz hitz andanak (*ez*

⁴AC: 2015eko abenduaren 27ko iluntzeko albistegia; XU: 2018ko martxoaren 30eko eguerdiko albistegia; IG: 2018ko martxoaren 30eko iluntzeko albistegia. Eskerrak eman nahi nizkioke Euskal Telebistari bideo hauek pasatzeagatik.

⁵https://eu.wikipedia.org/wiki/Iban_Garate;

https://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Usabiaga;

https://eu.wikipedia.org/wiki/Amaia_Cayero

da bezalakoak) bildu eta idazkera ortografikoan⁶ adierazi dira, arau bakoitzean aztergai den hotsa edo hots-bilkura soilik transkribatuz. Datuak idazkera ortografikoan ematea erabaki da, hitza osorik transkribatu gabe, arau bakoitzean gertakari foniko batez ariko garelako eta ez hitz berean egon daitezkeen beste zenbaitez. Gainera, modu honetan irakurketa ere erraztu nahi izan da, euskararen idazkera aski fonemikoa izanik, datuak emateko hautu honek ez baitu corpusaren azterketa baldintzatuko:

- Bokalak:

- 1) Arau honi dagokion adibiderik ez da bildu, arau honetan jasotakoa bokal bilkurei lotutako hurrengo arauetan bildutako datuekin aztertuko delako.

- Bokal bilkurak:

- 2) <ea>: [ea]

IG: *kaleratz[ea]k* eta ez adibidez *kaleratz[ia]k/kaleratz[ie]k*⁷; *tart[ea]n*; *barneald[ea]*; *kostald[ea]n*. Kontrakorik ez.

XU: *gazt[ea]k* eta ez adibidez *gazt[ia]k*; *urt[ea]*; *ordaintz[ea]*; *ondar[ea]*; *igand[ea]n*. Kontrakorik ez.

AC: *sut[ea]k* eta ez adibidez *sut[ia]k/sut[ie]k*; *arratsald[ea]n*; *hob[ea]*; *at[ea]k*; *goiz[ea]n*. Kontrakorik ez.

<oa>: [oa]

IG: *diplomatik[oa]* eta ez adibidez *diplomatik[ua]/diplomatik[ue]*; *herrialdetak[oa]k*; *os[oa]*; *bet[oa]*. Kontrakorik ez.

XU: *bertak[oa]k* eta ez adibidez *bertak[ua]k*; *os[oa]n*; *historik[oa]n*; *filmazi[oa]*; *j[oa]ten da*. Kontrakorik ez.

AC: *beharrezk[oa]k*⁸; *negoziazia[oa]k*; *gog[oa]*; *egunerok[oa]*; *j[oa]teko*. Kontrakorik ez.

⁶Adibide batzuetan idazkera ortografikoan beharko lukeen <h>-a ez da idatzi, arau horretan aztergai den hotsa behar bezala transkribatzeko.

⁷*u* eta *i* bokalen ondoren, *a > e* egiten da Hego Euskal Herriko hizkera askotan; besteak beste, Gipuzkoa hegoaldeko hizkeretan gertatzen da eta Bizkaiko mendebaldean ere indar handia du (Zuazo, 2004: 266).

<ia>: [ia]

IG: *hor[ia]* eta ez adibidez *hor[ija]/hor[ije]*; *harrigarr[ia]*; *eguzk[ia]*; *erreferentz[ia]*; *b[ia]r*. Kontrakorik ez.

XU: *aurrekar[ia]k* eta ez adibidez *aurrekar[ija]k*; *neur[ia]k*; *zuzendar[ia]*. Kontrakorik ez.

AC: *eg[ia]* eta ez adibidez *eg[ifa/iza]*; *erabak[ia]*; *egurald[ia]k*; *denborald[ia]*; *b[ia]r*. Kontrakorik ez.

<ua>: [ua]

IG: *odolts[ua]* eta ez adibidez *odolts[ue]*; *prozes[ua]*; *aparkalek[ua]k*. Kontrakorik ez.

XU: *pasealek[ua]n* eta ez adibidez *pasealek[uβa]n*; *autogobern[ua]*; *konplikat[ua]*. Kontrakorik ez.

AC: *est[ua]* eta ez adibidez *est[ue]*; *govern[ua]*; *arrisk[ua]n*. Kontrakorik ez.

3) IG: *gutx[i.e]nez*; *[i.a]zko*; *odolts[u.a]* baina *Galiz[ja]n*.

XU: *zor[i.o]nez*; *esk[i.a]tzen* baina *ad[je]razi du*; *eg[we]rdian*.

AC: *gutx[i.e]nez*; *karg[u.e]kin* baina *Donost[ja]ko*.

4) IG: *l[e.e]n*; *Nafarroa B[e.e]reko* baina *bertan b[e]ra*.

XU: *l[e.e]nean* baina *beste b[ej]n*; *[ew]n mila*.

AC: *s[u.i]ltzaileak*; *l[e.e]ndakariak* baina *n[aj] ditu*; *bertan b[e]ra*.

⁸Mendebalde sartaldean *o > u* egitea arrotza da (Zuazo, 2004: 184); beraz, Amaia Cayeroren euskalkian hizkera arduragabeen ere ez da espero *beharrezkuak* bezalako disimilaziorik, beste bi esatarien euskalkietan ez bezala.

- Kontsonanteak:

5) Arau honi dagokion adibiderik ez da bildu, arau honetan jasotakoa hurrengo arauetan bildutako datuekin aztertuko delako.

6) <g>: [g]

IG: *estrate[y]iak* eta ez *estrate[x]iak*. Kontrakorik ez.

XU: *pla[x]ioak; pla[x]ioari; [X]ibraltargo* “Gibraltargo”.

AC: *Ar[x]entina*.

7) <ts>: [tʂ]

IG: *odol[tʂ]ua; arra[tʂ]alde on; hau[tʂ]i dira; euri[tʂ]uagoa*.
Kontrakorik ez.

XU: *hu[tʂ] egin; eu[tʂ]iko dio; esangura[tʂ]ua; arra[tʂ]alde on* baina
i[tʃ]asertzeko; i[tʃ]asoz.

AC: *arra[tʂ]aldean; arra[tʂ]aldeko* baina *eraku[tʃ]iko dizuegu;*
garrantzi[tʃ]ua.

<tz>: [tʂ]

IG: *en[tʂ]un; a[tʂ]o; egoi[tʂ]ara; erreferen[tʂ]ia*. Kontrakorik ez.

XU: *er[tʂ]ain[tʂ]ari; pazien[tʂ]ia; bakoi[tʂ]ak; on[tʂ]i*. Kontrakorik ez.

AC: *ba[tʂ]arra; kar[tʂ]elan; a[tʂ]o; ebakun[tʂ]a*. Kontrakorik ez.

<s>: [ʂ]

IG: *albi[ʂ]tegia; babe[ʂ]a; neutralta[ʂ]un o[ʂ]oa; bi[ʂ]itari*. Kontrakorik
ez.

XU: *pa[ʂ]ealekuan; turi[ʂ]tak; [ʂ]ukaldariak; protagoni[ʂ]ta*.
Kontrakorik ez.

AC: *be[ʂ]te horrenbe[ʂ]te; [ʂ]akabanaketa; nagu[ʂ]ia; [ʂ]uak*.
Kontrakorik ez.

<z>: [s̺]

IG: [s̺]er modu[s̺]; gata[s̺]ka; [s̺]u[s̺]enean. Kontrakorik ez.

XU: ga[s̺]teak; gi[s̺]on; [s̺]u[s̺]endaria. Kontrakorik ez.

AC: bo[s̺]keta; [s̺]atiketa; ida[s̺]kari baina u[s̺]ten ari da; [s̺]ortzi; e[s̺]u[s̺]tekoa.

8) Maileguetako <z>: [s̺]

IG: Sanche[s̺]; Vi[s̺]io (Vicio musika-taldea) baina pro[θ]esuari.

XU: Ama[s̺]on baina baita Ama[θ]on ere; pro[θ]esio.

AC: [s̺]arago[s̺]an; Hernande[s̺] baina [θ]iudadanos; Asun[θ]ion.

9) IG: *berak* eta ez adibidez *beak*; *dira* eta ez adibidez *dia*; *egin ditu* eta ez adibidez *in ditu*; *begiratu* eta ez adibidez *beiratu*. Kontrakorik ez.

XU: *egiteagatik* eta ez adibidez *iteatik*; *horietan* eta ez adibidez *hoietan*; *eguraldi* eta ez adibidez *egualdi*; *ari* eta ez adibidez *ai*; *edo* eta ez adibidez *eo*. Kontrakorik ez.

AC: *nagusia* eta ez adibidez *nausia*; *egiten ari den* eta ez adibidez *iten ai den*; *berak* eta ez adibidez *beak*; *jendeari* eta ez adibidez *jendeai*; *geratu* eta ez adibidez *geatu*. Kontrakorik ez.

10) <rr>: [r] eta <r>: [r]

IG: ze[r] moduz; gau[r]; ha[r]iga[r]ia; lau[r]ak; ho[r]iek. Kontrakorik ez.

XU: gau[r]; ongi eto[r]i; kont[r]a; e[r]epublika; ho[r]iek; o[r]aindik. Kontrakorik ez.

AC: ongi eto[r]i; baka[r]a; po[r]ot; ede[r]a; be[r]ak; a[r]i da. Kontrakorik ez.

11) Hiru esatariak Hegoaldekoak direnez, espero zitekeen moduan, ez da hasperenaren adibiderik bildu. Hegoaldean [x] belarraz ahoskatu ohi diren *joan* aditzaren iraganaldiko adizkirik (*zihoan*, *zihoazen*, *etab.*) ere ez da bildu.

12) <il>: [ʎ] edo [il]

IG: *mi[ʎ]atik*; *dabi[ʎ]*; *bi[ʎ]aketa* baina *hi[l]bete*.

XU: *i[ʎ]ara*; *egi[ʎ]e*; *ma[ʎ]a*; *korapi[ʎ]oa*. Kontrakorik ez.

AC: *Madri[j]en*; *bozerama[j]eak*; *pi[j]ota*; *markaga[j]uan*.

<in>: [ɲ] edo [in]

IG: *berdi[ɲ]ak*; *ba[ɲ]a*; *ora[ɲ]*; *jaki[ɲ]a*. Kontrakorik ez.

XU: *eragi[ɲ]a*; *i[ɲ]or*. Kontrakorik ez.

AC: *jakin mi[ɲ]a*; *i[ɲ]ondik i[ɲ]ora*; *ora[ɲ]*. Kontrakorik ez

13) <j>: [j]

IG: *[j]aun andreok*; *[j]arrantuta*; *[j]endetza*; *laran[j]a*. Kontrakorik ez.

XU: *[j]oko dugu*; *[j]ai*; *[j]aurlaritzaren*; *[j]arrantzaile* baina *hain [x]justu ere*.

AC: *[j]akin mina*; *[j]ada*; *[j]ustizia*; *[j]a[j]aldia*. Kontrakorik ez.

14) <x>: [ʃ], [kʂ]

IG: *se[kʂ]u eraso*; *enba[ʃ]adoreak*.

XU: *gutxi[ʃ]eago*; *Errio[ʃ]an*.

AC: *se[kʂ]u erasoagatik*; *Te[kʂ]as*.

- Kontsonante bilkurak:

15) <zd>: z[t]

IG: *ez [t]a* “ez da”; *ez [t]ira* “ez dira”; *ez [t]io* “ez dio”; *ez [t]u* “ez du”.

Kontrakorik ez.

XU: *ez [t]abiltzanak* “ez dabilzanak”; *ez [t]uelako* “ez duelako”; *ez [t]a* “ez da”; *ez [t]irudi* “ez dirudi”. Kontrakorik ez.

AC: *ez [t]uela* “ez duela”; *ez [t]u* “ez du”; *ez [t]a* “ez da”; *ez [t]ituzte* “ez dituzte”. Kontrakorik ez.

<zb>: z[p]

IG: *ez [p]ezala* “ez bezala”. Kontrakorik ez.

XU: *ez [b]adute*.

AC: Adibiderik ez.

<zg>: z[k]

IG: [...] *seiaz [k]eroztik* “seiaz geroztik”. Kontrakorik ez.

XU: *matxeteez [g]ain*.

AC: *eginez [k]ero*. Kontrakorik ez.

16) <zz>: [tʂ]

IG: *e[tʂ]itzan* “ez zitzan”. Kontrakorik ez.

XU: *e[tʂ]uen* “ez zuen”; *e[tʂ]ielako* “ez zielako”. Kontrakorik ez.

AC: *e[ʂ]uela* “ez zuela”.

17) <nz>: n[tʂ] eta <ns>: n[tʂ]

IG: *izan [tʂ]itekeela* “izan zitekeela”; *esan [tʂ]uen* “esan zuen”.

Kontrakorik ez.

XU: *izan [ʃ]irela; joan [ʃ]itezkeela; izan [ʃ]ituzten.*

AC: *izan [tʃ]ituen, esan [tʃ]ion baina iruditzen [ʃ]aizu.*

<lz>: l[tʃ] eta <ls>: l[tʃ]

IG: Adibiderik ez.

XU: *hil [ʃ]irela; hil [ʃ]irenetako batzuk.*

AC: adibiderik ez.

<rz>: r[tʃ] eta <rs>: r[tʃ]

IG: *ber[ʃ]olariak; inber[ʃ]ioa.*

XU: Adibiderik ez.

AC: *hor [ʃ]egoen.*

18) Ez da adibiderik jaso.

3.2. Datuen analisia

Atal honetan aurreko ataleko datuetan oinarritutako analisia egingo da. Hiru aurkezleen ahoskeran alderik badagoen ala ez ikusteaz gain, euren ahoskera hizkera zaindurako egokia den ere aztertuko da. Arau bakoitzaren analisia egin denez, zenbaki bidez adierazi da analisi bakoitza aurreko ataleko zein arauri dagokion.

- 1) Arau honi lotutako adibiderik jaso ez den arren, jarraian datozen arauen analisia egitean ikusiko dugun moduan, hiru esatariek bost bokalak⁹ dagokien fonema bere oinarrizko forman gauzatu dituzte, inolako bokal kenketa edo nolakotasun-aldaketarik egin gabe. Hiru esatariek ahoskera zainduan hobesten dena bete dute.

⁹Hiru esatariak Hegoaldekoak direnez, espero zitekeen bezala, ez da beren ekoizpenean seigarren bokalaren edo <u> bokalaren [y] ahoskeraren adibiderik bildu.

- 2) Hiru esatariek <ea>, <oa>, <ia> eta <ua> bokal bilkurak dagokien fonemaz, ordezkatzetik egin gabe, ahoskatu dituzte. Hizkera zainduan hobesten dena bete dute.

Hizkera arduragabeetarako utzi dira *gaztiak* edo *diplomatikua* bezalako disimilazioak eta *horiya* bezalako eransketak. Fortitio bilakabidetzat hartzen dira horrelako disimilazioak nahiz eransketak eta tasunen batean berdinak diren fonologia elementuak (fonema, prosodia elementuak) ezberdinu egiten direla esan daiteke, oharmenaren aldetik entzungarriago eginez (Hurch, 2006); horregatik, horrelako fortitioak hizkera zaindurako egokiak direla esan daiteke (Donegan & Stampe, 1979: 142). 1998ko Errendapen txostenean adierazi bezala, ordea, horrelako fortitioak hizkera zainduan ez hobestea erabaki zen dialektologikoki zatituegiak direlako, euskalki batzuetan *hori[j]a* egiten dena beste batzuetan *hori[ʃ]a* egiten baita, esate baterako.

- 3) Hiru esatariek bi silabatan ahoskatu dituzte lehen bokala /i/ edo /u/-z osatutako bokal bilkura gehientsuenak baina, silaba bakarrean, diptongoan, ahoskatutako adibideak ere jaso dira: *Galiz[ja]n* (IG), *ad[je]razi du* (XU), *Donost[ja]ko* (AC), etab.; beraz, beti ez dute hizkera zainduan hobetsitakoa bete.
- 4) Hiru esatariek ez dituzte beti bi silabatan, hiatoan, ahoskatu <h> tartean duten bokal bilkurak: *bertan bera* (IG); *[ew]n mila* (XU); *n[aj] ditu* (AC); beraz, beti ez dute hizkera zaindurako hobetsitakoa bete. Oñederrak (1994: 1597) aipatu bezala, batasunaren eta bereizkuntza semantikoaren alde (hala nola, *bera* vs. *behera*) eta, hiztun batzuek behintzat erregistro zainduenetan hiatoa egiten dutenez, kasu honetan ere hiatoa egitea komenigarria litzateke.
- 5) Kontsonante batzuk dagokien fonema bereiziz ahoskatu dituzte hiru esatariek, hizkera zaindurako hobesten dena betez; beste kontsonante batzuen ahoskeran berriz, desberdintasunak egon dira esatari batetik bestera. Oro har, bokalen ahoskeran baino aldagarritasun handiagoa antzeman da.

- 6) <g>: /g/. Aldagarritasuna ikusi da hiru esatarien ahoskeran; Iban Garatek gainerako bokalen aurrean bezala [g] belar ahostuna erabili du; hizkera zaindurako hobesten dena bete du. Xabier Usabiagak eta Amaia Cayerok aldiz, [x] belar ahoskabea ahoskatu dute; hau da, ez dute araua bete.

Hegoaldean oso hedatua dago maileguetako <g> grafemaren ahoskera belar ahoskabea; maileguei eskainitako atalean ikusiko dugun moduan, faktore sozialek eragina dute. Hala ere, badira mailegu batzuk Hegoaldean gaur egun erabat barneratuta eta horrela egokituta daudenak eta hitz hauetan zilegi da ahoskera belar ahoskabea. Horregatik, garrantzitsua da arau hau hizkera zaindura begira eginga dagoela gogoratzea; esate baterako, *filolo[x]ia* esatea zilegi litzateke gure herrian lagun batekin hizketan ari garenean, baina *filolo[g]ia* esatea egokiagoa litzateke hitzaldi bat ematen edo, kasu honetan bezala, telebistako albistegi saioa aurkezten ari bagara.

- 7) Aldagarritasuna ikusi da hiru esatarien ahoskeran. Euskal fonologian bereziki garrantzi handiko saila da txistukariena, guztira sei fonema bereizten baitira euskalki batzuetan behintzat: hiru igurzkari /s̺/, /s̻/ /ʃ/ eta hiru afrikatu /t̺s̺/, /t̺s̻/, /t̺ʃ/. Dena dela, badirudi oposaketa galtzen ari dela (Oñederra, 2004: 148).

Iban Garate da hiru esatarien artean sei txistukari fonemak argien bereizi dituen. Xabier Usabiagaren kasuan, zalantzak egon dira; afrikatuen saileko hobikari apikaria sabaikaritzen, neutralitzen, hasia dela dirudi, baina beti ez da hain argi ikusi. Sabaiaurrekoarekin ahoskatutako adibiderik garbienak *i[t̺ʃ]asertzeko* eta *i[t̺ʃ]asoz* izan dira, baina adibide hauek ez dute neutralizazioaren erabateko ziurtasunik ematen, *itsaso* hitza hiztun askok baitugu sabaiaurrekoarekin lexikalduta.

Amaia Cayerok berriz, batzuetan igurzkari apikari eta lepokaria apikariaren alde neutraldu ditu, mendebaldeko hizkeretan ohikoa den moduan; izan ere, mendebaldean lau txistukariak bitara ekarri ohi dira *s* eta *z* > *s* eta *ts* eta *tz* > *tz* (Zuazo, 2004: 167). Adibide guztietan ez da hain argi ikusi, ordea, eta baliteke fonema bat edo bestea ahoskatu beharrean, tarteko zerbait ahoskatu izana, afrikatu eta igurzkarien aldaerak ugariak baitira estandarraren eraginagatik bereizkuntzari eusten saiatzen direnen ahoskeran (Oñederra, 2004: 94); esate

baterako, [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoarekin ahoskatutako *garrantzi[tʃ]ua* (AC) adibidea jaso da eta pentsa daiteke [tʃ] afrikatu apikaria ahoskatzeko ahaleginarengatik ahoskatu duela modu honetan.

Fonemen arteko distantzia fonetikoak txikiak direnean, erraztu egiten da baten alofonoak bestearenaren antza hartzea; hiztun arruntak fonema bat edo bestea, kategorikoki, entzuten du, antzekoegi gertatzen zaizkion aldaerak fonemak bakarrari egotziz. Honelako lanetan, ordea, entzumena zorroztu egiten dugu eta normalean entzuten ditugunak baino bereizkuntza txikiagoak entzuten ditugu. Hori horrela, batzuetan fonologian erabiltzen ditugun tasun ohikoak ez dira aski fin hiztun batetik bestera egon daitezkeen desberdintasun fonetikoak adierazteko; Donegan-ek (1993) honela dio: “[...] segments said to have the same features ought to be the same from language to language, and they are not [...]. This simply suggests that features currently in use do not include sufficient detail” (Donegan, 1993: 106). Hori dela eta, zalantzei aurre egiteko azterketa akustikoa egitea komeniko litzateke.

- 8) Arauan debekutzat ematen den gaztelerazko hortzartekoaren ahoskera jaso da hiru esatarien ekoizpenetan: *pro[θ]esuari* (IG), *pro[θ]esio* (XU), *[θ]iudadanos* (AC), etab. Ahoskera hau oso hedatua dago Hegoaldeko euskal hiztunen artean eta erdarazko leku eta pertsona izenetan ez ezik, euskal hitzetan ere asko entzuten da. Ahoskera hortzartekoa alde batera utzi beharko litzateke, are gehiago hizkera zainduan, <z> grafemaren euskal ahoskera [ʃ] hobikari leporaria baita.
- 9) Hiru esatarietako bokalarretako <b, d, g, r> kontsonanteak ahoskatu egin dituzte bokalarretan ere, hizkera zaindurako hobesten dena betez. Hizkera arduragabean emankorra da kontsonante hauek galtzea bokal artean, ekoizpen ahaleginaren aldetik errazagoa baita, baina aldi berean, oharrenaren aldetik hots seinalea ahuldu egiten da (Oñederra, 2004: 34). Horregatik, horrelako kenketak egokitzat hartuko genituzke hizkera arduragabean baina ez argitasuna eskatzen duten egoera formalagoetan, hots, hizkera zaindua eskatzen dutenetan (Donegan & Stampe, 1979: 142).

- 10) <r> eta <rr> hortzobikariak ahoskatu dituzte, eta beraz, hizkera zaindurako hobesten dena bete dute. Ez dute ez lehena isildu, ez bigarrena ubular egin; ubular ez egitearena ez da harritzekoa, ez baitira frantses-euskara elebidunak.
- 11) Hiru esatariak Hegoaldekoak direnez, espero bezala, ez da hasperenaren adibiderik jaso; Hegoaldeko euskal hiztunen artean <h> [x] belarraz ahoskatzen den *joan* aditzaren iraganaldiko adizkirik ere ez da bildu. Hori horrela, arau honen emankortasunaz hitz egiteko corpus zabalago bat beharko genuke, Iparraldeko hizkerak ere jasoko lituzkeena edo Hegoaldeko *joan* aditzaren adizkien ahoskera aztertzeko aukera emango ligukeena.
- 12) Aldagarritasuna dago hiru esatarien ahoskeran; Xabier Usabiaga eta Iban Garatek [i] goiko bokalaren edo [j] bere kide irristariaren jarraian doazen albokaria eta sudurkaria asimilazioz¹⁰ palataldu egin dituzte, nahiz eta Iban Garateren kasuan palataldu gabeko adibideren bat ere baden: *hi[l]bete*. Oro har, hizkera zaindurako hobesten dena bete dutela esan daiteke.

Amaia Cayerok, ordea, ez du hizkera zainduan hobetsitakoa bete, palatalizazioa [j] ez-albokariaren bidez gauzatu baita. Albokari sabaikaria neutraltearena euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere gertatzen ari den zerbait da. Bi hots klaseak, [ʎ] albokaria eta [j] ez-albokaria (edo honen kide [ɟ] herskaria), artikulatorki eta akustikoki oso antzekoak dira; albokaria izanik markatuena eta artikulatorki konplexuena ulertzekoa da hizkuntzak bat galtzekotan hori galtzea (Oñederra, 2004: 64).

Palatalizazioa lenitio bilakabidetzat har daiteke asimilazioa den aldetik, /i/-ren aurretik doan kontsonantea /i/-ren antzekoagoa egiten delako; fortitio bilakabideen ondorioa ere badu, ordea, asimilaziozko ordezkatzearekin oharmenaren aldetik nabarmenagoa dirudien tasun konbinaketa sortzen delako, kontsonante nabarmenagoa, alegia; beraz, hizkera zaindurako egokia dela esan daiteke.

¹⁰IG: *ba[n]a*. Mitxelenak zioenez, *baña* eta *baño* asimilazioz sortuak diren gauza iluna omen da (eskoletan jaso).

13) <j>: /j/. Hirurek, oro har, bokal arte edo ingurune jarraituan [j] sabaikaria ahoskatu dute eta hitz hasieran honen kide herskaria [j]. Beraz, hiru esatariek <j> grafema sabaikaria ahoskatu dute, hizkera zainduan hobesten den bezala. Xabier Usabiagaren ekoizpenean [x] ahoskera belarraren adibideren bat ere jaso da: *hain [x]ustu ere*. Erdialdean, /x/ fonemari dagokio <j> idazten dena eta euskalki horietako hitzun askok artifizialtzat hartzen dute hizkera zainduan hobesten den ahoskera sabaikaria, nahiz eta hainbat hizkeretan <j>-ren ahoskera sabaikaria den; hala nola, Iparraldean, Nafarroa gehienez eta Bizkaiko saihets handi batean, baita erdiguneko eskualde batzuetan ere (Camino, 2015: 433-434).

14) <x>: /f/, /kʂ/. Hirurek euskal hitzetan sabaiaurrekoa ahoskatu dute eta maileguetan berriz, [kʂ] ahoskera¹¹. Hiru esatariek hizkera zainduan hobesten dena bete dute.

Iban Garateren ekoizpenetik hartutako *enba[ʃ]adoreak* adibidearekin ikus daiteke hitzunak ez direla ortografiaren morroi eta historia ezberdineko hitzak bereizten dituztela; aipatutako adibidean, gaztelaniazko grafia zaharraren bidea hartu zuen Euskaltzaindiak eta hitzunak euskal irakurketa egin du. Amaia Cayerok ekoiztutako *Te[kʂ]as* adibidearen kasuan berriz, egungo ingelesezko <x>-en irakurketaren bidea hartu da, eta ez, aurreko adibidearekin bezala, gaztelaniazko ortografia-ahoskera zaharrarena.

15) <zb, zd, zg>: /ʂp, ʂt, ʂk/. Aldagarritasuna fonetikoki hierarkikoa dela ikusi da. Hiru esatariek [d] herskari horzkari ahostuna ahoskabetu egin dute txistukariaren ondotik, hau da, asimilazioa egin dute. Txistukariaren ondotik [b] herskari ezpainkari edo [g] herskari belar ahostuna doazenean, ordea, ez da joera bera ikusi hiru esatarien artean. Xabier Usabiagak esate baterako, bietan ahostunari eutsi dio, asimilaziorik egin gabe. Ez da agian harrigarria ahoskunean gertuago daudenen artean (/ʂ/ hobikaria eta /d/ horzkaria) araua emankorrago gertatzea.

¹¹*Enba[ʃ]adore*: Euskaltzaindiak EBAZ arauak argitaratu zituenerako *enbaxadore* eta *enbaxada* hitzak jasoak eta onartuak zeuden baina badirudi araua formulatzerakoan ez zirela kontuan hartu. Honen kidekoa litzateke *exekutibo* hitza ere. Eskerrak eman nahi nizkioke Miriam Urkia Euskaltzainari kontu hau argitzen laguntzeagatik.

Txistukariaren ondoko herskari ahostunaren ahoskabetzea ahultze edo lenitio bilakabidea da, lehen kontsonantearen ahoskabetasunak bigarrenean irauten duen aldetik; aldi berean, fortitioaren ondorioa ere badu aldatzen den fonemaren ahoskera, traba, indartu egiten delako. Beraz, esan daiteke egokia litzatekela esatariak txistukariaren ondoko ahoskabetze bilakabidea herskari guztietara hedatzea, horzkaria ez ezik ezpainkaria eta belarra ere ahoskabetuz.

- 16) <zz>: /tʂ/. Aldagarritasuna ikusi da; Xabier Usabiagak eta Iban Garatek afrikatze ordezkatzeari egin dute, ahoskera zainduan hobetsi bezala; honi lotuta, azpimarragarria da Iban Garatek ekoitzitako *e[tʂ]itzan* “ez zitza” adibidea, ondoko <tz> afrikatuak ez baitio oztoporik egin. Amaia Cayerok aldiz, igurzkariari eutsi dio, afrikatze ordezkatzetik egin gabe; ez du hizkera zainduan hobetsitakoa bete.

Afrikatzea indartze edo fortitio bilakabide bat da, ahoskera errazten du, eta beraz, hizkera zaindurako egokia dela esan daiteke.

- 17) <nz, lz, rz>: /ntʂ, ltʂ, rtʂ/ eta <ns, ls, rs>: /ntʂ, ltʂ, rtʂ/. Aldagarritasuna ikusi da. Txistukaria sudurkariaren ondotik doanean, arauaren betetze maila aldatu egin da esatari batetik bestera; Iban Garate eta Amaia Cayerok afrikatze ordezkatzeari egin dute eta Xabier Usabiagak berriz, igurzkariari eutsi dio. Amaia Cayeroren kasuan, igurzkariari eutsi dion adibideren bat ere jaso da (*iruditzen [ʂ]aizu*) eta, adibide bakarra izanagatik, azpimarragarria da, hizkerak ahoskeran eragiten duela erakusten baitu; izan ere, mendebaldeko hizkeretan *l*, *n* eta *r* ondoren igurzkaria ahoskatzen da (Zuazo, 2004: 169). Txistukaria dardarkariaren ondotik doanean aldiz, joera bera ikusi da, bai Iban Garatek (*inber[ʂ]ioa*) eta bai Amaia Cayerok (*hor [ʂ]egoen*) igurzkariari eutsi diote; albokariarekin, Xabier Usabiagaren pare bat adibide (*hil [ʂ]irela/[ʂ]irenetako*) baino ez dira jaso eta, hauetan ere, ez du afrikatze bilakabiderik egin. Dena dela, arau honen emankortasunaz ziurtasunez hitz egin ahal izateko, adibide gehiago aztertze aukera emango ligukeen corpus zabalago bat beharko genuke.

Afrikatzea fortitio bilakabidea izanik, oharmenaren aldetik hots unitate hobia, nabarmenagoa, sortzen da eta hizkera zaindurako egokia dela esan daiteke. Beraz, Euskaltzaindiak proposatutako hizkera zaindurako ahoskera arauetan hitz mugan igurzkariari eustea ere onartzen den arren, fonologiaren aldetik begiratuta, egokiagoa litzateke esatariek sudurkariaren ondotik afrikatze bilakabidea egiten duten moduan, dardarkari eta albokariaren ondotik ere egitea.

- 18) Ez da adibiderik jaso; arau honen emankortasunaz hitz egiteko corpus zabalago bat beharko genuke.

Ikus daitekeen moduan, arau guztien betetze maila ez da bera. Alde batetik, bokal eta bokal bilkuren ahoskeran, oro har, esatari batetik bestera ez da ezberdintasunik antzeman eta hirurek Euskaltzaindiak hizkera zaindurako proposatutako arauak bete dituztela esan daiteke. Zerbait nabarmentzekotan, fonologiaren alderditik, <ea>, <oa>, <ia> eta <ua> bokal bilkuretan disimilazioak eta eransketak hobestea egokia litzatekela aipatu dugu, horrelako fortitio bilakabideek entzungarritasuna hobetzen baitute. Hizkera zaindurako arauak finkatzean, ordea, horrelako fortitio bilakabideak baztertzea erabaki zen, dialektologikoki zatituegiak direlako.

Bokaletan baino aldakortasun handiagoa ikusi da esatarien artean kontsonante eta kontsonante bilkuren ahoskeran. Alde batetik, arau batzuk (9, 10, 13 eta 14) esatari guztiek bete dituzte.

Beste arau batzuetan aldiz, betetze maila aldatu egin da esatari batetik bestera. Hizkera zaindurako egokia dela esan dugu Iban Garatek eta Xabier Usabiagak egin duten bezala [i] goiko bokalaren ondoko albokaria eta sudurkaria palataltzea, oharmenaren aldetik kontsonante nabarmenagoa egiten baita; arau honi dagokionez, Amaia Cayerok ez du hizkera zaindurako hobetsitakoa bete, palatalizazioa [j] ez-albokariaren bidez gauzatzen baita. Baliteke fonema albokaririk eza adinarekin lotua egotea, albokaria eta ez-albokaria neutraltzen hasiak direla esan baitugu. Horrez gain, txistukarietan aldakortasun handia ikusi da eta arauaren betetze mailan hizkerak eragina duela dirudi; Amaia Cayerok esate baterako, adibide batzuekin zalantza izan arren, batzuetan igurzkari apikari eta lepokaria apikariaren alde neutraltzen dituela dirudi eta hau mendebaldean lau txistukariak bitara ekartzearekin lotua dagoela. Bestalde,

maileguetako kontsonanteei dagokienez, hizkera zainduan alde batera utzi beharreko ahoskerak ere jaso dira: alde batetik, Xabier Usabiaga eta Amaia Cayerok <e> eta <i> aurreko maileguetako <g>-ren [x] ahoskera belarra egin dute, eta bestetik, hiru esatarien ekoizpenetan jaso da igurzkari apikari lepokariaren gaztelerazko [θ] ahoskera hortzartekoa.

Horrez gain, arauaren betetze maila hotsen ezaugarri fonetikoaren arabera hierarkikoki gerta daitekeela ikusi dugu eta, batzuetan, ahoskunearen gertutasunak eragiten duela (*ez [t]a* baina *ez [b]adute* (XU), etab.). Hori horrela, kontsonante bilkuretan aldakortasun handia ikusi da; esatari batetik bestera arau batzuen eta besteen betetze maila aldatzeaz gain, esatari bakoitzak arau beraren barnean erakutsi duen betetze maila askotan ez da erabatekoa izan; hori erakusten dute 15.,16. eta 17. arauetan bildutako adibideek, esate baterako. Honenbestez, berriz ere, hizkerak ahoskeran eragina duela esan genezake.

Fortitio bilakabideekin oharrenaren aldetik hots edo hots kate hobeak sortzen direnez, egokia litzatekeela aipatu dugu txistukariaren ondoko herskari ahostunak ahoskabetzea (hala nola, *ez [t]a* “ez da”, *ez [p]adute* “ez badute”, *ez [k]ara* “ez gara”); baita elkarren segidan doazen igurzkariak (*e[t̪]uen* “ez zuen”) eta ozen ondokoak (*izan [t̪]irela* “izan zirela”, *hil [t̪]irela* “hil zirela”, *hor [t̪]egoen* “hor zegoen”) afrikatzea ere. Hizkeren arteko desberdintasunaren eta homogeneotasun erabatekoa ez bortxatzearen irizpidea dela eta, hala egiten den euskalkietan, igurzkaria mantentzea ere onargarria den arren, fonologiaren aldetik begiratuta, hizkera zainduan afrikatua egitea litzateke egokien.

Datuen analisiarekin amaitzeko, ahoskera arauak berrikusteko beharra antzeman dela esan daiteke; <x> duten mailegu gehienak [k̟] ahoskatu izanagatik, *enbaxadore* edo *exekutibo* bezalako hitzak ere badirela ikusi dugu, euskal hiztegian sartzerakoan gaztelaniaz kontsonante hori hala ahoskatzen zeneko grafia zaharra hartu eta [j] sabaiaurrekoarekin ahoskatzen direnak, alegia. Oñederrarekin honetaz hitz egiten egon ondoren, euskal hitzetan ez ezik maileguetan ere ahoskera sabaiaurrekoa erabiltzea ez dagoela nahitaez gaizki esan daiteke; ideia hau eztabaidagarria da, baina onartuz gero, arauak *enbaxadore* edo *exekutibo* bezalako hitzentzat ere balioko luke eta, araua gehiegi aldatu beharrik ez legoke, aski litzateke ondo ulertzea.

3.3. Maileguak

Maileguak erabiltzean beste hizkuntza bateko hitzak ahoskatzen dira, fonologia ezberdineko hizkuntza batekoak, eta honek ahoskeran ere eragina izan dezake. Azterketa honetan corpusean bildutako mailegukiko jokabidearen interesa dela eta, atal hau maileguen ahoskerari eskaini zaio.

Hiztun orok bere jardunean hitz egiten ari den hizkuntzaz kanpoko hitzak ahoskatzerakoan bi aukera izaten ditu: *adaptazioa* edo *adopzioa*, Draker-en terminoak bere horretan hartzea zilegi bazait (Draker, 2016: 1)¹². *Adaptazioa* mailegua hizkuntza hartzailearen fonologiara moldatzeari esaten zaio, hitz horrek jatorrizko hizkuntzan duen ahoskera alde batera utzi edo batzuetan ahoskera horretatik abiatuta, hizkuntza hartzailearen fonologiara moldatzeari, alegia. *Adopzioa* berriz, hiztunak mailegua ahoskatzerakoan hitz horren jatorrizko hizkuntzaren fonologiaz baliatzeari deitzen zaio, hau da, jatorrizko hizkuntzako ahoskerari eusteari.

Adaptazioaren adibidea izango litzateke lehenago ere aipatu dugun *enba[ʃ]adoreak* (IG). Hitz hau euskal hiztun gehienek, [x] belarra egiten duten Hegoaldeko hiztun zahar ziurrenik gehienak salbu, honela ahoskatzen dutela kontuan hartuta, gaztelaniak ere erabili zuen grafia zaharra hartu eta euskal irakurketa egin dela pentsa daiteke; honenbestez, ahoskera hautuarekin baino hautu ortografikoarekin lotuko genuke baina hizkuntza hartzailearen fonologiara moldatzearen erakusgarri litzateke inolaz ere.

Bestalde, adopzioaren adibideak dira *[x]ip [x]op* “hip-hop” (IG) eta *[dijej]* “DJ” (XU); lehen adibidean esaterako, hizkuntza emailean ahoskatzen den baina Hegoaldeko euskal hiztunek ahoskatzen ez duten <h> ahoskatzen du; ez du, ordea, ingeles hiztunek ahoskatuko luketen moduan ahoskatzen, bere hizkuntzaren ahoskerara egokituta baizik. Bigarren adibidean ere, hizkuntza emailea den ingelesean lexikaltzen diren bezala ahoskatzen dira siglak, baina hizkuntza hartzailearen ahoskerara egokituta. Horrez gain, lehenago txistukariekin aipatu bezala, hiru esatarien ekoizpenetan gaztelerazko [θ] hortzartekoaren adibideak ere jaso dira: *pro[θ]esuari* (IG), *Ama[θ]on* eta *pro[θ]esio* (XU), *[θ]iudadanos* eta *Asun[θ]ion* (AC). Hala ere, egia da hobikari lepokariarekin ahoskatutako maileguren bat ere bildu dela, adaptazioa eginez: *Ama[ʃ]on* (XU) eta *Vi[ʃ]io* (IG).

¹²Atal hau osatzeko Draker-en (2016) artikuluan oinarrituko naiz.

Badira beste adibide batzuk adopzioa edo adaptazioa egitearen hautua esatari batetik bestera aldatu egiten dela erakusten dutenak. Hala nola, joera ezberdinak ikus daitezkeela esan dugu <e> eta <i> ondoko maileguetako <g>-ren ahoskerari dagokionez; Iban Garatek adaptazioa egiten du *estrate[ɣ]ia* ahoskatuz baina Xabier Usabiaga eta Amaia Cayerok adopzioa gaztelerazko ahoskera belarra eginez: *pla[x]io* (XU) eta *[X]ibraltar* (CA).

Draker-ek (2016) dioenez, adaptazioa edo adopzioa egitearen eragileak askotarikoak izan daitezke; komunitatearen elebitasun maila (*degree of community bilingualism*) eta hizkuntza emailearen estatus politikoa (*political status of the donor language*) besteak beste. Komunitate bateko elebitasun maila altua denean, adopziorako aukerak ugaritu egiten dira; hau bereziki ohikoa da hizkuntza emailea hizkuntza nagusi bat denean eta hizkuntza hartzailea berriz, hizkuntza gutxitu bat. Gure kasuan, euskarak euskal komunitatean duen egoera diglosikoa kontuan hartuta, esan daiteke, aztertu ditugun saioetako maileguen ahoskeran adopziorako joera antzematea bat datorrela Drakerrek (2016) emandako eragile hauekin.

Hala ere, artikuluan aipatzen da hauek ez direla eragile bakarrak eta azterketa batzuen arabera, aipatutako faktore sozial hauek ez ezik, faktore indibidualagoek ere badutela zerikusia; norberak hizkuntza emailean duen maila linguistikoak adibidez. Hau gure kasuan bereziki garrantzitsua da, gaur egun euskaldun guztiok elebidun baikara txikitatik eta bi hizkuntzetako fonemak geureganatzen baititugu. Honenbestez, Oñederrak (2009) bere lanean aipatu bezala, ez gaude adaptazio edo egokitze fonologikoa egitera behartuta, lehenagoko belaunaldietako hiztun elebakar edo euskara heldutan ikasi zutenen moduan.

4. AHOSKERAREN GARRANTZIA GAUR EGUN

Gaur egun, ahoskera arauen erabilera nahiko irregularra da, hiztunen ezaugarri sozial eta psikologikoen arabera; Euskaltzaindiako ahoskera lantalde eta batzordekoek, eskolako irakasleek eta abarrek euskalkiak egoera informaletan-kolokialetan erabiltzekoak direla esaten digute eta Batua berriz, egoera formalagoetan erabiltzekoa. Erabileran, ordea, beti ez da hori ikusten; hiztun batzuei Batua arrotza egiten zaie eta aurkako jarrera erakusten dute, Batuaren erabilera eskatuko luketen egoeretan ere euren hizkera erabiliz. Gainera, nire inguruan ikus dezakedanaren arabera, badirudi jarrera hau

geroz eta zabalduago dagoela euskal hitzun gazteen artean. Guzti honek euskararen ahoskeran ere eragiten du, noski.

Badira bestalde, ikasgelan Euskara Batua besterik erabiltzen ez duten irakasleak. Euskara Batu hori, ordea, gramatikalki dela Batua esan daiteke baina ez fonologikoki, ahoskatzerakoan ez baitituzke hizkera zaindurako proposatutako arauak kontuan hartzen. Euskara irakasterakoan ahoskerari ematen zaion garrantzia oso txikia edo ia ezerezekoa denez, euskal hitzun berri askok ez dute bereganatu euskararen fonema inbentarioa, eta ondorioz, asko entzuten dira *a[tʃ]o* “atzo”, *en[tʃ]un* “entzun”, *u[tʃ]i* “utzi” bezalakoak. Horrelako afrikatuen euskal ahoskera hobikari lepokaria izanik, *a[tʃ̺]o*, *en[tʃ̺]un* eta *u[tʃ̺]i* izango litzateke hitz horien ahoskera egokia. Ez dira hitzun berriak soilik, ordea, euskararen ahoskeraren inguruan ikasi behar dutenak; lehenago ere aipatu dugun bezala, erdialdean oso hedatua dago <j>-ren ahoskera belarra (*laran[x]a*), baina badira sabaikariarekin (*laran[j]a*) ahoskatzen duten hitzunak ere eta gaur egun ahoskera sabaikaria da hizkera zaindurako proposatzen dena. Euskal hitzun zahar askok ez dute begi onez ikusten ahoskera sabaikaria eta hizkera zainduan ere ahoskera belarra egiten dute, bestea artifiziala dela uste baitute. Guzti honek argi uzten du guztiok dugula euskararen ahoskeraren inguruan ikasi eta hobetu beharra, baita askotan euskal hitzun on eta benetakotzat hartzen diren euskaldun zaharrek ere.

Euskara Batua erabiltzean darabilgun ahoskerak ez die hitz solteen ahoskerari soilik eragiten, baita esaldi osoaren azentuari ere, prosodiari, alegia. Euskara Batuarekin hartu dugun eredu prosodiko berriari Oñederrak (1998b) *prosodia gaztea* deitu dio eta honela definitzen du:

“Batuaz jabetzean ikasitako gramatika-erregelak, hitzak eta letrak, hizketa bihurtu behar izan ditugu. Orduan, nolabait esan, Batuak sortu digun behar berri horren aurrean, hizkuntza berriarentzat, eredu prosodiko berria hartu dugu [...]: azentu erregularra, prosodia txukun bat, azentu erraz eta nabarmena duena, ez gorago deskribatua bezalako azentu zail eta harrapagaitza.

Gazte dei geniezaioke prosodia horri, berria delako eta belaunaldi gazteagoetan duelako maiztasunik handiena. Emankor da halaber, adinez ez horren gazte apika, baina bai euskal hitzun modura gazte diren euskaldun berriengan. Hizkuntzaren egokiera berrietan agertzen delako ere justifika liteke *gazte* deitzea [...]” (Oñederra, 1998b: 444).

Gaur egun oso hedatua dago *prosodia gaztea* eta belaunaldi gazteenek eta hitzun berriek ez ezik, euskaldun berri ez direnek ere erabiltzen dute Euskara Batuan ari direnean; irakasleek euren ikasgeletan, esate baterako.

Guzti honekin argi geratzen dena da ahoskeraren arloko gaiak lantzea ez dela eginkizun erraza. Mintzoak arlo soziolinguistikoa ere ukitzen du eta askotan fonema jakin baten ahoskera jakin bat gizarte maila jakin batekin, jatorri geografiko batekin edo kultura erreferentzia berezi batzuekin identifikatzen dugu. Hori horrela, ahoskera jakin batek prestigioa izan dezake hiztun batzuen artean eta, aldi berean, aurreiritziak eragin beste batzuen artean (Camino, 2015: 434-435). Zailtasunak zailtasun, garrantzitsua da ahoskeraren inguruko gaiak lantzen jarraitzea, hiztun oroentzat ahoskera baita hizkuntza horretan aritzeko ziurtasuna ematen diona; azken batean, ahoskera da hiztun baten hizkuntza gaitasunaz hartzen den lehen inpresioa (Rindal 2014 apud Oñederra et al., 2015: 502).

5. ONDORIOAK

Alde batetik, EBAZ arauen izaerari dagokionean, garrantzitsua da arau edo proposamen horien malgutasuna azpimarratzea. Esan bezala, Euskaltzaindiak emandako arau horiek ez dira zerrendatze soil bat, hizkuntzaren aldakortasuna kontuan hartzen duten proposamenak baizik; ez da ahaztu behar arau hauetan hizkera ezberdinak dituzten hiztunak kontuan hartzen direla eta horren arabera EBAZ bat baino gehiago dagoela. Ahoskeraren estandartzea orekatua izan dadin, beharrezkoa izango da neurbide egoki eta ahalik eta objektiboenak erabiltzea, nola hizkuntzaren hala hiztunaren mesedetan. Izan ere, ikusi dugu ahoskeraren gaiak arlo soziolinguistikoa ere ukitzen duela eta prestigio eta aurreiritzi kontuek indar handia izaten dutela (Camino, 2015: 438).

Bestalde, arauen erabilerari dagokionez, badirudi Euskaltzaindiak 1998an proposatutako EBAZ arauen erabilera nahiko irregularra dela gaur egun. Adin eta hizkera ezberdineko hiru esatarien ekoizpenetan ikusitakoaren arabera, bi eragile horiek ahoskeran eragiten dutela dirudi, arau batzuk hiru esatariak bete arren, beste batzuetan aldagarritasun handiagoa ikusi baita. Honenbestez, arau edo proposamenen betetze maila hiztun bakoitzaren arabera dela esan daiteke, ez egoera formaletan eta jendaurrean lanean ibiltzen direnek modu bateratuan adostu eta landutakoa. Datuen analisia egiterakoan, kasu batzuetan zalantzak egon dira, txistukarien sailean esate baterako; hori dela eta, hiztun batetik bestera egon daitezkeen desberdintasun fonetikoak adierazteko batzuetan fonologian erabiltzen diren tasun ohikoak ez direla aski fin ikusi dugu eta, zalantzak argitzeko, azterketa akustikoa egitea komeniko litzatekeela. Horrez gain, arau batzuen

emankortasunaz hitz egin ahal izateko, corpus zabalago baten beharra ere aipatu dugu, Iparraldeko hizkeretan dagoen hasperenaren eta seigarren bokalaren ahoskera aztertzeo aukera emango ligukeena, besteak beste. Maileguetan adopzioa egiteko joera ere nabarmendu dugu eta badirudi hau lotua dagoela euskal komunitatearen elebitasun maila eta hizkuntza emailearen, aztertutako adibideen kasuan gaztelania eta ingelesaren, estatus politikoarekin. Horrez gain, faktore indibidualagoek ere eragiten dutela ikusi dugu, besteak beste, euskaldunok txikitatik elebidun izateak.

Ahoskerari daukan garrantzia eman eta euskal hiztunek, betiere hala eskatzen den egoeretan, arau hauek normaltasunez eta eroso erabiltzea nahi badugu, irakasleen lana ezinbestekoa izango da. Eurek izan behar lukete, ikasgelan aldakortasunaren berri eman eta euskara bigarren hizkuntza duten ikasle horiei euskalkien ahoskera irakatsiko dietenak (Oñederra et al., 2015: 513). Horretarako, aldagarritasun hori nola gauzatu eta irakatsi asmatu beharko da eta alde horretatik Oñederra eta besteek (2015) ikasleari arauak irakastea baino garrantzizkoagozat jotzen dute arau horien arabera ahoskatzen irakastea. Horretarako egokia litzateke arauak esaldietan irakastea, hitz eta esaldiak ongi ahoskatzen ikasteko ez ezik, baita lehen aipatutako *prosodia gaztearen* arazoa konpontzeko ere; modu honetan azentuak esaldietan irakatsiko lirateke eta ez hitzetan.

Egia da ahoskera irakastea gramatika edo hiztegia irakastea baino zailagoa dela, hizkuntzak dituen gainerako atalak baino kontrolagaitzagoa baita. Gainera, gehienetan irakasleek eurek ere ez dute ahoskera irakasteko heziketarik izaten eta arrazoi horiek tarteko, bigarren maila batean geratzen da. Zailtasunak zailtasun, ikasleentzat ahoskera lantzea oso garrantzitsua dela esan dugu, hiztun baten hizkuntza gaitasunaz hartzen den lehen inpresioa ahoskera denez, hiztunari ziurtasuna ematen baitio (Rindal 2014 apud Oñederra et al., 2015: 502). Ikasgeletan ahoskera hizkuntzaren beste atalekin batera lantzeaz gain, beharrezkoa izango da arau edo proposamen horiek behar bezala zabaltzea; egoera formaletan eta jendaurrean lan egiten dutenen artean lehendabizi eta gainerakoen artean gero.

Amaitu aurretik, lanaren hasierako lerroetan aipatutako kontu bat gogorarazi nahi nuke; Euskaltzaindiaren lana hizkuntzaren behar berriei erantzutea dela aipatu da, eta hiztunarena berriz, Akademiak araututakoa praktikan jartzea. Azken lerroetan, batik bat hiztunaren ikuspuntutik begiratu zaio gaiari, behin Euskaltzaindiak arauak finkatuta, arau horien erabilera sustatzean baitago erronka nagusia. Hala ere, ezin daiteke esan

Euskaltzaindiak behin hizkera zaindurako proposamenak argitaratuta, ahoskera zaintzeko egin beharreko guztia egin duenik; izan ere, hizkuntza denborarekin aldatu egiten da, hitz berriak sartzen dira, asko maileguak, eta 1998an finkatutako arauak berrikustea beharrezkoa izango da, euskal hiztunak hitz berri horiek nola ahoskatu behar dituen jakin dezan. Arauak berrikuste horretan, arauak adierazteko moduz ere gogoeta egin beharko litzateke, egun argitaratuta dauden EBAZ arauetan ahoskera adierazteko letrak erabiltzen baitira, transkripzio fonetikoak ezagutzen ez dituzten irakurleengan pentsatuz. Alde honetatik, transkripzio fonetikoak gehitzea ere egokia litzateke, ahozko hizkuntza erabiltzerakoan, ortografian oinarritzea saihesteko asmoz.

Azken finean, lan honen helburua ez da izan hiztunek arauak zenbateraino erabiltzen dituzten aztertzea eta ebaluatzea, arauak ongien betetzen dituen saritzeko eta besteak zigortzeko. Bai, ordea, arauen gaur egungo erabilera nolakoa den ikustea “mikro-ikerketak” moduko batean, etorkizunera begira zertan hobetu behar den hausnartzeko. Ondorio sendoagoetara iristeko, noski, aztergaia zabaldu eta teoria sakontzea litzateke beharrezko.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Camino, Iñaki. 2015. Ahoskera hiztunik hiztun eta eskualderik eskualde. *Euskera* 60 (2), 429-470.
- Donegan, Patricia & David Stampe. 1979. The Study of Natural Phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*, 126-173. Bloomington: Indiana University Press.
- Donegan, Patricia. 1993. On the phonetic basis of phonological change. In Charles Jones (arg.), *Historical Linguistics: Problems and Perspectives*, 98-130. London: Longman.
- Draker, Memet Aktürk. 2016. Language dominance as a factor in loanword phonology. *International Journal of Bilingualism*. <http://journals.sagepub.com/home/ijb> (2018-02-18).
- Euskaltzaindia. 1998. Euskaltzaindiaren arauak. *Euskera* 43 (2), 485-490.
- Hurch, Bernhard. 2006. Dissimilation. In Keith Brown (arg.), *Encyclopedia of Language & Linguistics*, 719-722. Philadelphia: Elsevier.
- Kintana, Xabier. 1992. Batasunerako pausoak gogoratuz. *Ele* 11-12, 23-71.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1994. Ahoskera araupetzeaz. *Euskera* 39 (2), 1589-1605.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1998a. Ahoskera Lantaldearen Errendapen Txostena. *Euskera* 43 (2), 379-388.

- Oñederra, Miren Lourdes. 1998b. Prosodiaren oraina eta ahoskera araua. *Euskera* 43 (2), 439-449.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1998c. Ahoskera eta Arauak. Arauak eta ahoskera. *BAT*. <http://www.soziolinguistika.eus/node/776> (2018-02-23).
- Oñederra, Miren Lourdes. 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2009. Early bilingualism as a source of morphological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque. In Andrea Calabrese & W. Leo Wetzels (arg.), *Loan Phonology*, 193-210. Amsterdam: John Benjamins Publishing.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2016. Standardisation of Basque: From grammar (1968) to pronunciation (1998), 125-143. https://www.researchgate.net/publication/311484297_Standardisation_of_Basque_From_grammar_1968_to_pronunciation_1998?ev=publicSearchHeader&sg=W_oCcqxyTngyjEE0ZzCO03ezNZAfZawFvyt0_jhKThq5mZLAhWW10u0nRQHRggsAuDe dyayzzyW7VQ (2017-11-19).
- Salaburu, Pello & Xabier Kintana. 1984. *Euskara hobean hobe*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Salaburu, Pello. 2018. Batasunaren bide luzea (1968-2010). In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 746-800. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Txillardeggi [José Luis Álvarez Emparanza]. 1987. Azentuari buruzko proposamen bat. *Ele* 2, 5-20.
- Zuazo, Koldo. 2004. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Osagarriak

- | | | | | | |
|------|-------|------------------|---|----------------------|---------------|
| s.a. | 2017. | Iban Garate. | <i>Wikipedia</i> | <i>Entziklopedia</i> | <i>askea.</i> |
| | | | https://eu.wikipedia.org/wiki/Iban_Garate | | (18-04-30). |
| s.a. | 2017. | Xabier Usabiaga. | <i>Wikipedia</i> | <i>Entziklopedia</i> | <i>askea.</i> |
| | | | https://eu.wikipedia.org/wiki/Xabier_Usabiaga | | (18-04-30). |
| s.a. | 2017. | Amaia Cayero. | <i>Wikipedia</i> | <i>Entziklopedia</i> | <i>askea.</i> |
| | | | https://eu.wikipedia.org/wiki/Amaia_Cayero | | (18-04-30). |

Bideoak

Amaia Cayeroren 2015eko abenduaren 27ko iluntzeko albistegia.

Xabier Usabiagaren 2018ko martxoaren 30eko eguerdiko albistegia.

Iban Garateren 2018ko martxoaren 30eko iluntzeko albistegia.